

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakaria Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 25. urteurreneko ospakizunean izan da

Omenaldia eskaini zaie hura abian jartzen lanean aritu ziren eta parte hartu zuten pertsonai, haien artean Nafarroako Gobernuko lehengo kargudun batzuk

Viernes, 27 de abril de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina, Foru Gobernuko beste kide batzuekin batera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) sorreraren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldian izan da gaur eguerdian. Ekitaldian, Unibertsitatearen Egunean egindakoa, hainbat esparrutatik zentroa abian jartzen lagundu eta parte hartu zuten pertsonak omendu dira.



Catalán, Lafuente eta Barcina, NUParen sorreraren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldian.

Ekitaldia 12:00etan hasi da NUPeko Fernando Remacha Aretoan, eta Julio Lafuente unibertsitateko errektorea izan da buru. Harekin batera izan dira, Foru Komunitateko agintari nagusiak, haien artean, Nafarroako Parlamentuko lehendakari Alberto Catalán; Nafarroako Gobernuko ordezkari Carmen Alba; Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakari Juan Manuel Fernández, bai eta parlamentari, alkate eta ikasketa-ordezkariek ere.

Ekitaldian zehar, 1987ko Nafarroako parlamentuko Hezkuntza Batzordeko kideei omenaldia eskaini zaie; urte hartan NUPa Sortzeko Legea onetsi zen; omenaldi ere jaso dute, hasierako prozesuan lan egin zuten Nafarroako Gobernuko pertsonai eta baita orduan Foru Komunitatean zeuden unibertsitateko irakaskuntza-zentroetako zuzendariei ere.

1987an Hezkuntza

Batzordea osatzen zuten parlamentariak ziren: Pedro Pegenaute (lehendakaria), Ramiro Martínez (lehendakariordea), Iñaki Cabasés (idazkaria), Emilio Boulandier, Javier del Castillo,

Carlos Cristóbal, Camino Oslé, Albito Viguria y Rafael San Martín. Bertako partaide ziren ere: José Javier Gortari, José Ramón Zabala y José Ángel Zubiaur, guztiak jada hilik.

Unibertsitatea abian jartzen lan egin zuen Nafarroako Gobernuaren taldearen buru 1987an Hezkuntza eta Kulturako kontseilari izan zen Ramón Felones izan da. Talde hori ondorengoek osatzen duten: Carlos Arrieta, Jesús Javier Ascunce, Luis Cruchaga, María Cruz Guembe, Guillermo Herrero, Miguel Ángel Iriso, Pedro Manterola, Javier Navallas, Pedro Pascual, José Luis Ramírez eta José María Romera.

Azkenik, omendutako zuzendariak izan dira: José Ramón Pascual (Nafarroako OHoko Irakasleen Unibertsitate Eskola), Juana María Lautre (Iruñeko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola), Olga Díaz de Rada (Nafarroako Erizaintzako Unibertsitate Eskola), Concepción Corera (Gizarte Laneko Unibertsitate Eskola), Bernardo Royo (Nekazaritzako Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola), José María Montes (Industriako Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola) eta Jesús Viguri (Gizarte Azterketen Unibertsitate Eskola).

NUPak omendu guztiei unibertsitatearen sorrerari buruzko Felipe III.a erregearen dokumentu baten erreproduzio bat oparitu die faksimile-an.

Bestalde, 2010-2011 ikasturteko Sari Bereziak banatu zaizkie 33 ikasleri, 2011n hildako unibertsitate-komunitateko hiru pertsona gogoan izan dute eta intsigniak jarri zaizkie erretiroa hartutako zortzi langileri. Gainera, 30 doktore berri inbestitu dira eta azken urtean izendatutako 21 irakasle titularrek eta katedradunek kargua hartu dute.



Barcina eta Catalán, ekitaldian izan diren agintarien artean.